



Lehenik eta behin, etxean landutakoa begiratuko dugu.

Goazen 65. orrialdera: «Zer izen jarri dituzue? Katekesi-taldea, familia...?». Ikus dezagun 67. orrialdea, tolesturikoa: «Hau bai ospakizuna! Ezagutzen duzuen festaren bat gogorarazten al dizue?».

Ondoren, goazen 69. orrialdera: irakur dezatela han idatzi dutena.

Eukaristia ospakizun bat da: kristauok gure fedea ospatzeko elkartzen gara. Elkarrekin ospatzen dugu, eta Jesusen azken afaria gogoratzen dugu bertan. Kristauok Elizan elkartzen gara, mezetan.

Eta mezetan zer egiten dugu? (Ezer bururatzen bazaie, esan dezatela). Mezetan abestu egiten dugu, otoitz egiten dugu, egin ditugun okerrengeatik barkamena eskatzen dugu, ogia banatzen dugu, Jaunaren hitza entzuten dugu (irakurgaiak).

## MEZAREN ZATIAK:

### Harrera

- Mezari kristauon seinalea eginez ematen zaio beti hasiera. Gogoratzen al duzue kristauon seinalea zein den? **Gurutzearen seinalea**. Gogora dezagun, aitaren guztiok batera eginez.
- **Barkamena eskatzen dugu** egin ditugun okerrengeatik; adibidez, gezurra esateagatik, ez obeditzeagatik, erantzun txarrak emateagatik, etxeko lanak ez egiteagatik, iseka egiteagatik, borroketan ibiltzeagatik...

### Hitzaren Mahaia:

- **Irakurgaiak**: Itun Zaharreko eta Itun Berriko irakurgaien bidez, Jaunaren hitza entzuten dugu.
- **Homilia**: apaizak entzun berri dugun irakurgaiaren inguruko azalpenak ematen ditu.
- **Eskaerak**: guztion beharren alde eskatzen dugu.

### Ogiaren Mahaia:

- **Eskaintza**: ogiarekin eta ardoarekin batera, gure lana ere eskaintzen diogu Jainkoari, gure bizia, gure poztasunak eta gure tristurak.
- **Kontsakrazioa**: Jesusek azken afarian apostoluekin batera egindakoa gogorarazten du apaizak, Jesusek esandako hitz berberak erabiliz.
- Jesusek erakutsi zigun otoitza errezatzen dugu: **Gure Aita** (gogora dezagun otoitza)
- **Elkarri bakea eman**.
- **Jaunartzea**: ogia banatzen dugu.

### Azken otoitza eta agurra:

- **Bedeinkapena**, apaizak ematen digu.
- Jainkoa bihotzean **gurekin eramateko** gonbita egiten digu, lantokira, ikastolara, etxera...

**Gurutzegrama egingo dugu.**



**72. orrialdean**, apaizak mezetan erabiltzen duen arropa zein den ikus dezakegu:

- ALBA: tunika edo soineko zuria da.
- ZINGULUA: apaizak gerriko modura eramaten duen lokarria da.
- ESTOLA: apaizak lepotik behera eramaten den oihala da, bufanda modukoa.
- KASULLA: apaizak albaren gainetik jartzen duen jantzia da, pontxo baten modukoa. Hainbat koloretakoa izaten da. Kolore bakoitzak urte liturgikoaren garai zehatz bat adierazten du. (Bereiz doan orria eta kortxoa).

Apaizaren jantziaren orria emango diegu haurrei. Urte liturgikoak izaten dituen koloreetako batean margo dezatela kasulla. Denborarik izanez gero, moztu marrazkia; bestela, etxera eraman dezatela, han mozteko.

Bukatzeko, gurutzearen seinalea egingo dugu, eta *Gure Aita* errezatuko dugu.



1. Meza hasieran Itun Zaharreko eta Itun berriko testuak irakurtzen dira,  
.....deitzen zaiote.
2. Jaunaren hitzeri egiten zaion azalpena.....deitzan da.
3. Ogiarekin eta ardoarekin batera, gure lana ere eskaintzen diogunean  
Jainkoari .....deitzen zaio.
4. Eukaristiako zatirik garrantzitsuenari.....deitzen zaio.
5. Azkenik..... eukaristiako ogia banatzen da.





